

Uko egiteari uko egin

Oihane Larretxea
de la Granja

Fenomeno bat ematen da gure artean. Bitxia, xelebrea. Akaso badu azalpen zientifiko edo antropologikorik. Harrituta nago nola aitatasunaren proportzio ia berean handitzen den txirrindularitzarekiko zaletasuna. (Txirrindularitzaren lekuan berdin funtzionatzen du mendizaletasunak edo *running*-ak). «Ai, gure mendiak eta bailarak... hain dira inspiragarriak, ezta?». Aste luzearen ondoren haizea hartu beharra, badakizue, *mind fullness*-aren garrantzia. Aitatzoren titulua estreinatu eta bat-batean kirolaren harrak zizta egiten omen die. Bueno, ez denei, baina bai askori. Bitxia dela nioen, zeren ezagutzen ari naizen kasu guztie-

tan gizonezkoak dira biktimak. Gizon zuriak eta beltzak. Gazteak. Heterosexualak. Eta ezkertiarrak. Ze gauzak...
Kuriositateak eraginda, galdezka jarri naiz. Ene, eta bai bitxia, batzuei kirolarekin gertatzen zaiena besteei *soziedadea*-rekin gertatzen zaielako, eta kasualitatez, ostiraletan. Leher eginda daude aste luzearen ondoren, eta hala ere lagunekin afaldu beharra; baina zer da hori itsasoaren handitasunaren ondoan? *Mind fullness*-a, badakizue.
Gauzak konplikatzen joan ziren galde-tu ahala, eta ohartu nintzen beste zenbait, betebeharraren zentzu berberak bultzatuta, joaten omen direla Anoetara, San Mamesera edo Sadarrera. Esta-

dioaren izenak ez du axola. Asteburuan partida? Bai, bai, *por supuesto*; astean zehar ere joaten direla esan nahi dut. Txukun-txukun bufanda jantzi eta bokata besapean golak ospatzera. Baleude.
Zerrenda bat heldu da nire eskuetara. Honen, haren eta bestearen alabek eta semeek izenaren atzetik aitatzoren abizena dute. “Etxeko” kontu hauen guztien “negoziaketak” nolakoak izan daitezkeen alde batera utzita, ez al da susmagarria balantza beti alde berberea inklinatzea? Ezkertiarrak nioen. Teorian modernoak; praktika, ordea, irailean ere ez dute gaindituko uko egiteari uko egiten dioten bitartean. Hori bai gol ederra sartu digutena. •

Melanina gora eta behera

Koldo Sagasti

Pasa den astean Ehun mugimenduak Irun eta Hendaiaren arteko muga egindako esperimentu soziologiko baten berri eman zuen sare sozialetan zabaldutako bideo batean. Ariketan gazte bat jarri zuten Bidasoaren gaineko zubia zeharkatzen. Mutilaren zurbiltasunak ez zion, nonbait, inongo arretarik eman han jarritako poliziari, eta arazorik gabe egin zuen mugaz gaindiko paseoa. Gero, oinezko berberak, aurpegia beltzez margotuta, berriz ekin zion zubi gainean pasatzeari eta, bisaiaren iluntasunak asaldatuta, lehengo uniformedun berak berehala moztu zion bidea, aurpegikoa pintura baino ez zela egiaztatu zuen arte. Ekin tzak errealtate lotsagarria utzi du agerian, pertsona batzuen eta besteen mu-

gitzeko askatasuna bermatzeko irizpide bakarra azalaren tonaltatean datzala, batzuen eta besteen melanina kopuruan, alegia.
Azken hilabeteotako nazioarteko egoe-ra aldrebesak erakutsi digu ditzosozko proteina horren arabera ezberdin juzgatzeko pertsonen gizatasuna, urteetan mundu osoko hamaika gatazketatik iheslan zetozen errefuxiatuei itxi zaizkien ate bertsuak parez pare irekitzen zaizkiena egun gutxiren buruan azal zuriko erbesteratuei. Ez dut esango beste edozein gerratatik bezala Ukrainakotik alde egin dutenei ere harrera egin behar ez zaizkien, baina deigarria behintzat bada batzuei eta besteei ematen zaien trataera ezberdina. Eta susmagarria, halaber, batzuei askatasunez mugitzea eragozten

dieten erakunde berberak asilo eskubidearen aldeko kanpaina instituzionala sustatzen dutela iheslarien melanina maila gurearen parekoa denean.
Pigmentazioaren araberako bereizketa hori egiturazko arrazakeriaren erakuslea da, eta gizarteak normaltasunez onar dezan pedagogia asko egin behar da, eskolatik hasita. Horregatik, ulergarria egiten zait aste honetan Steilas sindikatuak kaleratutako txostena. Lan horrek azaltzen du EAE Europako lehenengo eskualdea dela jatorriaren araberako eskola bazterkeriari dagokionez. Hezkuntza politika ere propio diseinatuta dago txikitatik ikas dezaten, Espainiako politikari ultraliberal batek zioen bezala, sagarrak eta madariak ez direla nahastu behar. •